AKADEMIA-ONARTZE MAILA DESBERDINEZ

1977 - X - 28

J. L. Lizundia

EUSKERA 1971. "Euskaltzaindiaren Agiriak". "Euskaltzaindiaren Egituraz". "II. Batzordeak" 125-6 horr. honela dio: "Batzordearen lan egiteko prozedura edo ibilpide-legea honela izango da: Atal Eragileak lana prestatzen du, eta ondoren Kontseilari Atalari pasatzen dio. Hauek beren oharrak, eraskinak eta abar jarri ditzaiokete lanari, beti arrazoiak emanez. Gero Atal Eragileak, ohar eta eraskin hoiek estudiatzeko, berriz ere lana hartzen du; eta estudiatu eta azken eskua eman ondoren, lana Euskaltzaindiaren Batzarre osora (al Pleno) aurkezten da. Hemen, Araudiak dionez, batzarkide guztiek izango dute hitza, banan banan (bost minutuko bitartea emango zaio bakoitzari hitz egiteko). Eta azkenean, bototara behar baldin bada, euskaltzain osoek bakarrik izango dute botoa.

Batzarreak lana onartu ondoren, hurrengo Euskera-n argitaratu behar da.

EUSKERA 1972, 203-204 horr. eta *EUSKERA 1976,* 20-21 horr. "Euskaltzaindiaren Agiriak". "Euskaltzaindiaren Arautegia". "Elkargoaren bilkurak".

EUSKERA 1974. "Euskaltzaindiaren agiriak". "Euskaltzaindiaren barne-erregelak". "Akademi-Batzarreak", 363-4-5 horrialdeak. 9. arti. "Are gehiago komeni da hori egitea —testuaren kopiak atera eta euskaltzain oso guztiei eta eska dezaten laguntzaileei garaiz bialtzea—, batzarreak onetsi edo birretsi behar dituen puntuak ukitu behar direnean".

* * *

ONARTZE MAILAKATZEAZ

Euskaltzainburuak eskaturik, txostentxo hau prestatu dut akademi-onartze mailakatzeaz. Beharrezko da, zeren eta gure hizkuntzaren, eta batera bere akademiaren bizimodua konplikatzen bait doa.

Batzutan Euskaltzaindiak berak onartu behar ditu bere hizkuntz gai nagusiak, hala-nola ortografia, aditz laguntzailea, aditz sintetikoa, idatz arauak, etab... Beste lan sail bat Euskaltzain batek, edo batzorde batek egindako lana onartzen du, beretzakotzat hartzen du hobeto esan, nahiz eta horrek esan nahi ez hizkuntz hesparrutik begiraturik, forma edo izen guztiak onartzen dituenik. Beste batzutan beste erakunde batzuk proposaturiko zerbait onartu behar du, berak zuzen zuzenean landu ez duena, baina heurentzat eta euskararentzat ere bai, noski, interesgarri dena. Azken baten gure elkargora gure "superbisio" bila datoz, horrela uste baitute, gure itzalak beren lanari eta azken baten euskarari finkatze mesede bat egiten dielako; bide batez Euskaltzaindiaren maisutza aitortuz. Orainarte, guztiz nahasirik ez bada ere, nahiko nahasirik gabiltz onartze kontuetan, eta ezin dugu horrela jarrai, kategoria desberdinak baitaude. Ezin da aditz laguntzailea, izendegi bat, mekanika hiztegi bat eta ikastola testu bat, tratamendu berberarekin despatxatu eta onartu. Horretarako da txosten hau, zerbait argi lagungarri izango delakoan egin dut. Zuon laguntza eske nator gero, hobetzen, gehitzen, zehazten joan gaitezen.

Nik lau maila ikusten ditut arlo honetan:

1. ONARTZEN AKADEMIKOA OSOA
2. AKADEMI BATZORDE LANA
3. ONIKUSI EDO ONERITZIA
4. GAINBEGIRADA

* * *

I MAILA

Kasu honetan, Arautegi eta Barne Erregelek eskatzen duten prozeduraz, lan batzorde bat izendatuko da, epe bat, indikatiboa, bederen, jarriaz eta horrek lana prestatzen duenean, Euskaltzainburuari adieraziko dio zuzenean, edo Eus-

kaltzaindiaren Bulegora, hurrengo batzarreko gaietan sartzeko eskatuz. Horretara lanaren aurkezpena egiten da, eta zentsadura edo zuzenketa epe bat jarri, euskaltzain oso guztiei, batzordeko diren laguntzaileei ere bai, eta espreski eskatzen duten beste edonor laguntzaileri lanaren kopiak zabalduko zaizkie.

Ahal izanik, Euskaltzaindiak lanari azterketa orokor bat egingo dio, metodologia, akademi arau nagusiak betetzen dituen begira eta abar, hastapeneko eta onartze bat emango dio, onartze inizial bat. Horrek ez du esan nahi, dauden hitz edo forma guztiak onartzen dituenik. Prozedura hau, zerbaitekin konparatzekotan, Diputazio, Udal batzarre eta antzerako elkargoek egiten duten "aprobación inicial" antzeko izango litzateke, eta adibide bat jartzekotan hirigintza plan bat "se le aprueba inicialmente y se somete al período de información y enmiendas" esaten da. Zer da hori, ba plana gehien bat ongi dagoela, teknikoek ondo tajutu dutela, baina horrek ez duela esan nahi ertz eta bide guztiek ongi daudenik, eta horrek birrespen bat, "aprobación definitiva" bat behar duela. Akademia lanak ere begirada orokor bat emanik ikusiko da Euskaltzaindiaren bideetan egina dagoen, linguistika, gramatika eta abarretako erregela nagusi eta nabarmenenak betetzen dituen, metodologia jator baten eginda dagoen ala ez. Horretara "hastapen onartzea" ematen zaio, gero euskaltzainek, banan banan aztertzeko aukera izango dute, hots, onartze definitiboa, erabatekoa eman behar diotenean, ezingo dute, berriz lana osorik ankaz gora bota, baizik eta izen edo forma batzu, zentsatuak, zuzenketak eginak dituztenak, bakarrik, eztabaidatuko direla.

Nora bidali jakiteko, hoberena, Euskaltzaindiaren bulegora, Bilbora bidaltzea da, idazkari-ordeak banaketa lana egin dezan, nahiz eta batzorde idazkariak ere zuzenean lan bera egin, baina beti ere, idazkari-ordeak eta batzorde idazkariak koordinatu beharko dute zeregin honetan.

Batzordea-izendatzearen fetxa, hastapen onartzekoarena eta erabatekoarena argi jarri beharrezkoak dira.

Bide honek betetzen direnean, EUSKERAn argitaratuko dira, bertan lan egin edo parte hartu duten batzordekoen izenak aipatuz, baita ere alde edo kontra agertu diren euskaltzainena ere (azken hau aski da batzar agirian agertzea).

Honelako lan batek: Aditzarena, adibide bat jartzeko, izan da honetariko Euskaltzaindiaren LEHEN MAILAko onartzea du, AKADEMI ONARTZE OSOA (Aprobación académica plena).

II. MAILA

Hau ere Euskaltzaindiaren lanekin gertatuko da, eta modu bitara eraman liteke prozedura. Bata Euskaltzaindiak batzorde bat izendatzen du, lanak eskatzen dituen atalez, hala komeni bada, eta honek darama lanaren martxa eta bestea Euskaltzaindiak norbaiti, Euskaltzaindiko bati, derrigorrez, enkargatzen dio lanak, baina orduan ere kolaboratzaile batzu izatea komeni da, kontseilari, ez lankide, batzorde gisa.

Onartzea ordea, ez da hizkuntza maila osokoa. Batez ere, maila hau izendegi eta horretarikoentzat izan daiteke, adibidez, izendegi onomastiko eta antzerakoentzat. Onartzea orokorra da, eta lan Euskaltzaindiarena izanik ere, elkargoak ez ditu izen eta forma guztiak banan banan zehatz ontzat beregain hartzen. Euskaltzaindiak mandatu baten agindu edo enkargu baten bidez, bere barneko norbaiti —akademiko bati, kolaboratzaileekin edo batzorde bati— agintzen diona, batzar jakin baten.

Kasu honetan, ere aurkezpena egin beharra dago, batzar egun jakin batetan, aurretiaz Euskaltzainburuari, zuzenean, edo bulego nagusiaren bidez, batzar gaietan sar dadin, eta horrela iragar. Batzarrean, lanaren arduradunak, unipertsonala bada berak, edo batzorde buru edo ordezkoak, aurkezle bezala lanaren berri emango du, mamia, lan prozedura eta metodologia eta gainerako xehetasun nabarmenenak emanez. Ondoeren, zentsadura edo zuzenketa epe jakin bat jarriko da, eta ondoren onartuko da. Bistan da kasu honetan ez duela zerrenda guztiak onartze zehatz bat behar, nahi eta nahi ez, onartze orokor bat baizik. Bestalde, bidezkoa da, euskaltzain norbaitek bere erreserba formala egitea zenbait punturi, eta hala ezartzea onartze agirian.

Onartze maila honetan ere, batzordekoen edo-ta arduradun eta kontseilarien izenak ere, partaide izen direnak noski, behar den lekuan, kasu: lanaren argitalpenean agertzea. Bai-

ta ere lanaren agindua eta lankideen izendapenena, aurkezpenaren eta onartzearen datak ezartzea ere beharrezkoa da.

Argitalpena Euskaltzaindiarena da, eta normalean EUSKERAn agertuko da, komeni izanik separata gisa atereaz. Euskaltzaindiak, batzorde edo arduradun egileen gomendioz, beste editorial edo etxe babesle baten bidez ere argitaratzea ere, erabaki dezake.

III. MAILA

Euskaltzaindiak ezin du, zenbait alorretan, geroago eta ugariagotan zorionez, alde batetik, hizkuntzaren hazkunde prozesoa gel araz. Teknik arazoetako munduan batez ere, hau nabarmen ageri da, kontugintza, filatelia, banka, mekanika, etab. Batzu Euskaltzaindiarekin kontaturik egin dira, beste batzu ez. Dena dela, hemen gure euskaltzainburuak, urte honen hasieran "URTEBIKOAREN PLANGINTZA" deituriko txostenean diona dakargu gogora: "Jakina, Euskaltzaindiak ezin du inolaz ere berak bakarrik itsaso zabal hau, "Hiztegi espezializatuak bultzatzeaz" inguratu. Bestelako taldeen lana bultzatu behar du, eta, ahal den neurrian, denen artean koordinazio, batasun eta bat-etortzea bilatu. Badakit ez dela gauza erraza, baina behar-beharrezkoa da hizkuntzak oinarrizko batasun bat eta joera nagusi batzuk gorde ditzan. Bestela, lan guzti huntatik aurrerapena atera beharrean, nahaspila segi daiteke. Eta nahaspila horrek euskal irakaskintzaren ondorioa eta kausitzea arriskutan jarriko luke".

Beraz, kasu honetan zer egin? Horretan diharduen lan taldeak, Euskaltzaindiko edo kanpoko izan berdin da, egin dezala bere lana, baina nolabait hizkuntz akademiaren koordinazio, batasun bilakatze hori nahi badu, eta on litzateke, bere berri ematea hasiera-hasieratik interesgarri litzateke.

Gehiago oraindik, maila bateko gure onartzea nahi baldin badu, horretarako normatiba gutxiengo bat jarraitu beharko du, minima eta ez maximuna. ONIKUSI EDO ONERITZI dei daiteke "visto bueno" itzuliko genukena. II. edo I. mailako onartze baten kontra ezingo luke joan bistakoa denez, hau bide batez, puntu konkretu horretan aldatzen ez bada behintzat hitz edo forma konkretu horretan esan nahi da.

Zein prozedura eraman? Gure ustez honela, Hiztegi –hiztegi-espezializatua izango dira gehienetan– edo edonolako lan taldeak, lan asmoaren berri ematen dio Euskaltzaindiari, horretarako garaiz Euskaltzainburuari edo bulego nagusiaren arduradunari gaztigatuz, hurrengo batzar gaietan sartzeko, proposamena agertuaz. Euskaltzaindiak bere barneko bat, edo batzu, izendatzen ditu begirale gisa, lanaren martxa jarraitzeko, eta gure joera nagusien berri emateko.

Lana amaitzen dutenean, ordezkari horren bidez, ohizko eta aipatu den eran gaietan aurkezpena iragartzen da, behar den kopiak ekartzen dira, gutxienez euskaltzain osoentzat, eta gai horretan edo inguruko batzorderen baten diharduten laguntzaile direnentzat, eta zentsudura edo zuzenketa epe bat jartzen da, gutxienez hile betekoa. Hurrengo batzarre batetan, Euskaltzaindiak bere ONIKUSIA ematen dio, baina ez du, egile taldeak zuzenketa guztiei kasurik zertan egin, euskaltzain osoen gehiengoarenak ez badira behintzat. ONIKUSIA, orokorra da beti ere.

IV. MAILA

Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak, uste den baino erabaki garrantzitsuago bat hartu zuen, duela pare bat urte, halegia testu liburuetan, berak gomendatuko zituenetan, Euskaltzaindiak, bere gainbegiratu edo "supervisio" bat ematea beharrezkotzat jotzea. Presaka egin zen lana, eta gure azpiegitura eskasaz, erantzun azkar eta jator bat ematen ahalegindu ginen. Horrela GERO, IKER-SAIOKA, ANAYA, Donostiako Apezkikutegiko Kristau Ikasbideak eta abarrek, hizkuntzaren alorreko gure "gainbegirada" hori eraman zuen. Gehiago oraindik, Madrileko Hezkuntza eta Zientziako Ministergoak berak ere, textu horretaz gure "supervisio" hori eskatu zuen, bere "reconocimiento" delakoa emateko. Bistan da, "gainbegirada" hori hizkuntzarekikoa zela soil soilik, eta ez mamiarena edo pedagogiarena. Xalbador Garmendia, Kintana, Letamendia, Mendiguren, Txillardegi Euskaltzaindikoak, eta oraindik barneko ez ditugun, baina bai aski meritu duten, Dionisio Amundarain eta Andolin Eguzkitza, izan ziren lan eskerga hori burutu zutenak.